

JUAN CARLOS MERINO

Erretereriako Alkatea

Aurten ere Oarso aldizkariak nire herriko bizilagunei mintzatzeko ohorea eskaintzen dit, hain dinamiko eta eguneroko arazoekin hain konprometitua den herri honetako alkate naizenez gero.

Bada urte bete agintaldi berria hasi eta berriro alkate izateko aukeratua izan nintzela. Unerik aproposena egindako guztiaren eta, bereziki, geroko egitasmo eta ilusioen azterketa egiteko.

Ugariak dira azken urtean zehar Udaletxetik bultzatu diren jarduerak. Horietako asko eta asko egunerokoak izanagatik, ez zaie garrantzirik kendu behar. Erretereriako herritarrek ikusten dute gure hiriak aurrera egin, itxura hobetu eta eskualdeko gune nagusi bihurtzen ari dela. Hori guztia Udalak eginiko lanaren emaitza ez ezik, Erretereriagatik eta Erretererriaren alde, gure herriaren oraina eta geroa hobetze aldera, lanean ari diren elkarte eta banakoena ere bada.

Denboraldi horretan Olibet-Etxeberrieta auzoa berriro urbanizatzeko obra gehienak burutu ditugu; Etxebizitza Ministerioaren laguntzaz, Torrekua dorretxea eraberritzeari ekin diogu; azoka zaharrean kokaturiko Kultur Etxearen lehen fasea amaitu eta bigarrenarekin hasi gara; babes ofizialeko 128 etxebizitza eman dira; bidegorri-sarea hedatu da, eta abar. Hala ere, badira hain nabarmenak izan ez diren beste zenbait jarduera: 18 urtetik beherako gazteentzako "Gazterrente" txartelaren sorrera, zenbait autonomia erkidegoren kultura sustatzeko aste kulturalak eta bestelako ekintza ugari.

Une honetan guztion artean aurrera atera beharreko hainbat erronka dugu eta, batez ere, hiru dira azpimarratu nahi ditudanak: San Marko mendiko Historia Museoa, Lekuonako udal liburutegi berria eta hiru zumardiak bat egitea. Proiektu horiek erretereriarrek ilusioz hartuko dituztelakoan nago, baita Galtzaraborda aldeko igogailuak jartzea, aparkaleku gehiago egitea, Altzate (lehengo Campsa) nahiz Gamongoa eremuetan etxebizitza babestu eta gizarte-laguntzako etxebizitzak eraikitzea eta beste asko eta asko ere.

Baina, ororen gainera, herriko jaiak ospatzen ari gara eta, horregatik eman nahi dizkiet eskerrak elkarte eta erakundeei, horien lan eta zeregin onaren ondorioz, jai egitarau honetaz gozatzeko aukera dugulako. Era berean, aipamen berezia egin nahi diot aurten 50. urteurrena ospatzen duen Ereintza Elkarteari. Horiek guztiak dira gauzak egoki egitearen, kultura, kirol eta gazteen alde lan egitearen eredu. Hau da, Erretererriaren alde lan egitearen eredurik egokiena.

Merezi dugu atsedenaldia, merezi ditugu jai egun batzuk. Denon gustukoa izatea espero dudana jai egitarauaz elkarrekin eta giro ederrean gozatzeko diren egunak.





JUAN CARLOS MERINO

Alcalde de Errenteria

Nuevamente la revista Oarso me concede el honor de poder dirigirme a mis vecinos y vecinas como alcalde de esta Villa tan dinámica y tan comprometida con los problemas cotidianos.

Ahora hace ya un año que se inició un nuevo mandato en el Ayuntamiento y que fui reelegido alcalde de Errenteria. Es el momento de hacer un pequeño balance de lo realizado y sobre todo de los proyectos e ilusiones para el futuro.

Son muchas las actuaciones que desde el Ayuntamiento se han realizado durante este año, muchas son del día a día y no por ello menos importantes. Los ciudadanos y ciudadanas de Errenteria van viendo cómo cada día nuestra ciudad progresa, va mejorando su aspecto y va convirtiéndose en centro neurálgico de la comarca. Ello es obra no sólo de la labor del Ayuntamiento, sino también de todas aquellas asociaciones y particulares que siguen trabajando por y para Errenteria, para que la Villa tenga un presente y un futuro mejor.

Durante este tiempo hemos ejecutado la mayor parte de las obras de reurbanización del barrio de Casas Nuevas-Olibet; se ha iniciado, con la ayuda del Ministerio de la Vivienda, la reforma de Torrekua, hemos culminado la primera fase del Centro Cultural ubicado en el antiguo mercado e iniciado la segunda; se han entregado 128 viviendas de protección oficial en Gecotor; se ha ampliado la red de bidegorris, etc. También hay otras acciones no tan tangibles como la creación de la tarjeta "Gazterrente" para los jóvenes que cumplen 18 años; las semanas de promoción de las diversas culturas de diferentes comunidades autónomas, y así un buen número de actividades.

Ahora tenemos diversos retos que entre todos vamos a sacar adelante, y quiero referirme a tres que considero de gran importancia: el Museo Histórico en San Marcos, la futura biblioteca municipal en Lekuona y la unión de las tres alamedas. Estoy seguro que todos los vecinos y vecinas de Errenteria verán con ilusión estos proyectos, como lo son otros tales como la implantación de ascensores en la zona de Galtzaraborda; la construcción de más aparcamientos, la construcción de vivienda protegida y social en Alzate (antigua Campsa) y Gamongoa y así un largo etcétera.

Pero ante todo, en estos momentos estamos en fiestas y por ello quiero agradecer a las asociaciones y entidades que han hecho posible este programa festivo su trabajo y su buen hacer; haciendo un reconocimiento especial a Ereintza Elkartea que cumple este año su 50 aniversario. Todos son un ejemplo, un buen ejemplo, de cómo hacer las cosas, de cómo trabajar en pro de la cultura, del deporte, de la juventud, en definitiva de cómo trabajar por Errenteria.

Nos merecemos unos días de fiesta, unos días de relax, en los que disfrutemos en sana convivencia de este programa festivo que espero sea del gusto de todos.

Por último, quisiera ponerme a disposición de todos y todas los que lo deseen para que me hagan partícipe de sus ideas y sugerencias para mejorar nuestra Villa.

Gora Madalenak!